



Mutrikuko Udala

ONDARBELTZ HONDARTZAKO KANTINAREN, ALDAGELEN ETA KOMUNEN ZEHARKAKO KUDEAKETAREN KONTZESIOA EMATEKO EGINGO DEN LEHIAKETA IREKIA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA EKONOMIKO-FINANTZARIOEN ETA JURIDIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontzesio kontratuaren xedea Ondarbeltz hondartzako kantinearen, aldagelen eta komunen kudeaketa izango da.

2. IZAERA JURIDIKOA

Egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 2 eta 3 artikuluetan araututakoarekin bat etorrira, eta legearen 8. artikuluko Zerbitzu Publikoen Kudeaketarako Kontratu gisa tipifikatuko da, 253.a) artikuluan aurreikusitako kontzesio administratiboa modalitatearen bitartez.

Kontratazio administratibo bitartez emango da zerbitzua, pertsona fisikoei emandako kontzesio administratibo bidez. Pertsona fisiko horien ardurapean jardungo dute prestazioa burutzeko egintza materialak egiten dituzten pertsonek.

Administrazioaren eta esleipendunaren zein haren pertsonalaren artean ez da inolako lan-harremanik. Esleipendunaren ardura izango dira laneko, gizarte segurantzako eta sektorean indarrean dagoen araudiaren arabera legezkiokoen betekizunak.

Ondokoek arautuko dute kontratua:

1. Baldintza Administratibo Berezien agiri hau.
2. Preskripzio Tekniko Berezien agiria.
3. Parte hartzen duen Administrazioak eta esleipendunak sinatzen duten kontratua.
4. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea.
5. Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratu Legearen Erreklamendu orokorra onartzen duena, aurrekoarekin bat ez datorren guztian.
6. Tokiko Korporazioen Zerbitzuaren Erreklamenduaren III. Titulua, 1955eko ekainaren 17ko Dekretuak onartutakoa, aipatutako Legean eta Erreklamenduan ezarritakoarekin bat badator.
7. Izaera osagarria izango dute zuzenbide administratiboko arauak, eta horiek ez diren kasuan, zuzenbide pribatukoak.



Mutrikuko Udala

Baldintza Administratibo Berezien Agiri honen eta espedienteari lotutako gainerako agiri teknikoen artean ezadostasunik balego, Agiri honetan ezarritakoak aginduko du.

3. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENA

Kontratazio organoren betebeharrak izango dira, betiere indarrean dagoen legeriari lotuta, kontratua interpretatzea, kontratua betetzean sor litezkeen zalantzak argitzea, interes publikoari begira aldatzea, eta kontratua bukatutzat ematea, baita dituen ondorioak ere, Sektore Publikoko kontratuen legeak ezarritako baldintzen eta ondorioen mugetan.

Administrazioak, interes publikoko arrazoiak daudenean, kontzesio administratiboaren ezaugarriak eta erabiltzaileek ordaindu behar izango dituzten prezioak aldatu ahal izango ditu, betiere kontzesioaren oreka ekonomiko-finantzarioa zainduz. Hala eta guztiz ere, interes publikoko arrazoiak daudenean Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, aurreikusi gabeko arazoei irtenbidea emateko, eta horrelakoetan esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 284.c) artikuluan ezarritakoari kalterik sortu gabe.

4. KONTRATUAREN INDARRALDIA

Kontzesioa 2010 denboraldirako emango da, lehiaketaren esleipenaren jakinarazpenaren egunetik aurrera. Era berean, alde biak ados badaude, kontratua 2011 denboraldirako luzatu ahal izango da.

Denboraldi bakoitzaren iraupena urte bakoitzeko ekainaren 15etik irailaren 15era bitartekoa izango da, egun biak barne hartuta. Aldi hori luzatu ahal izango da, aurrez Udalak onartuta eta alde bien adostasunarekin, eskumena duten beste administrazio batzuen baimenei kalterik sortu gabe.

5. ESLEIPENDUNAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Ondokoak izango dira esleipendunaren funtsezko betebeharrak:

- Kontratuaren xede den zerbitzua ematea, kontratua sinatu ondoren hamar egun igaro aurretik (zerbitzua ematen hasteko jarritako egunerako) zerbitzua emateko lokalak eta instalazioak martxan ipinita.
- Esleipendunak kontzesioaren iraupenaren aldi osoan ematea zerbitzua, eta bere konturakoak izango dira funtzionamendu orokorrean sortzen diren gastuak.
- Energia eta beste kontsumoak ordaintzea. Komunetan eta barruko dutxan izango den ur-kontsumoa udalak ordainduko du, eta horretarako Udalak kontagailua ipiniko du.
- Burutu beharreko lanak burutzeko nahikoa gaitasun duten langileak egotea.



Mutrikuko Udala

- Osasun, lan edo beste arloko lege-xedapenak betetzea.

Instalakuntzen mantenimendu ezegokiak sortutako osasun gabezien ondorioz eskumena duten erakundeek Udal honi zigor ekonomikorik ezarriko baliote, esleipenduna izango da arduraduna, eta berehala ordaindu beharko luke zigorra.

- Eraikinak eta instalakuntzak zaintzea eta funtzionamendurako garbitasun- eta osasun-egoera onean izatea kontzesioa amaitzen denean zerbitzua egoki emateko beharrezkoak diren eta atxikituta dauden beste instalazioekin batera eman arte.

- Zerbitzua goizeko hamarretan hasi eta gaueko hamarretan amaitzea. Ordutegia zabaldu nahiko balitz, nahikoa aurrerapenez egin beharko zaio eskera Udalari.

- Emandako zerbitzuaren funtzionamenduaren ondorioz hirugarrenei sor lekizkiekeen kalteen aurrean erantzutea, Mutrikuko Udalak emandako aginduak betetzeko egindako egintzetatik ez badatoz.

- Erabiltzaileei sor lekizkiekeen kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguru poliza kontratatzea.

- Mutrikuko Udalari itzuli beharko zaizkion ondasunik edo instalakuntzarik baimenik gabe ez inorentzea eta kargarik ez ezartzea.

- Kontratua esleipendunak berak gauzatzea, eta Udala bertaratu gabe hirugarrenei ez ematea edo lagatzea.

- Esleipendunak prestazio zehatzak edo osagarriak azpikontratu beharko balitu, aurrez idatziz jakinaraziko dio Udalari, azpikontratuaren baldintza teknikoak argi adieraziz. Udalak beretzat hartzen du azpikontratazioa onartzeko edo ez onartzeko eskubidea, aplikagarria den araudiaren mugetan mugak ezartzekoa, eta esleipendunari mota guztietako bermeak eta fidantzak eskatzekoa.

6. ESLEIPENDUAREN ESKUBIDEAK

Esleipendunaren eskubideak izango dira ondokoak:

- a) Zerbitzua emateko beharrezkoak diren jabari publikoko ondasunak erabiltzea.
- b) Mutrikuko Udalari tarifak berrikusteko eskatzea, proposamena arrazoituz.

7. ESLEIPENDUNAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Esleipendunak hartuko ditu instalakuntzetan zerbitzua emango duten langileak.

Esleipendunak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasuna eta osasunari buruz indarrean dauden



Mutrikuko Udala

lege-xedapenak bete beharko ditu. Mutrikuko Udala horien baitako erantzukizunetik libre geratuko da.

8. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Burutu beharreko prestazioak erabiltzaileekiko harremana dakarrenez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritakoari jarraituz, ondoko neurriak hartuko dira:

- a) Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek euskaraz atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz gauzatuko du zerbitzua esleipendunak.
- b) Esleipendunak euskararen erabilera bermatuko du herritarrei zuzendutako inprimakietan, oharretan eta jakinarazpenetan.
- c) Prestazioak erabiltzaileekin edo, oro har, herritarrekin harreman zuzenik ez dakarrenean, esleipendunak bermatu beharko du Udalarekin izango dituen harremanetan eta jendaurrean egingo dituen erakusketa, ohar, kartel eta beste euskaraz egitea.
- d) Esleipendunak edozein zerbitzu burutzeko kontratatzen dituen hirugarrenei berari eskatzen zaizkion hizkuntza irizpideak eskatuko dizkio.
- e) Udalak euskararen erabileraren inguruan hartzen duen edozein erabaki jakinaraziko zaio esleipendunari, bete dezan.

Neurri hauek beteko ez balira, edo zerbitzua burutzeko hizkuntza gaitasuna duten nahikoa langile kontratatuko ez balira, zehapen espedientea hasiko da edo, bete gabeko neurriak prestazioaren ezaugarriak kontuan hartuta funtsezkotzat jotzen badira, kontratua baliogabetu egingo da.

9. ESLEIPENDUNARI LURSAILAK ETA INSTALAKUNTZA PUBLIKOAK EMATEA

Mutrikuko Udalak esleipena egin eta hurrengo hamar egunak igaro aurretik esleipendunaren esku ipiniko ditu zerbitzua emateko beharrezkoak izango diren ondasunak eta instalakuntzak.

10. TARIFAK

Esleipendunak ondoko tarifak kobratuko die erabiltzaileei:

- Komuna: libre.
- Barruko dutxa: 0,60 euro edo gutxiago.
- Aldagela: 0,60 euro edo gutxiago.

11. ESLEIPENDUNAK KORPORAZIOARI ORDAINDU BEHARREKO KANONA

Esleipendunak 700,00 (zazpiehun) euroko kanona ordainduko dio urtero Udal Korporazioari, BEZ sartuta. Kanon hori egindako proposamenean hobetu ahal izango da.



Mutrikuko Udala

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratatzeko gaitasuna izango dute pertsona naturalek zein juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek, jarduteko gaitasun osoa dutenak eta ekonomia- nahiz finantza-kaudimena egiaztatzen dutenak, kontratatzeke debekua dakarren inolako zirkunstantzian ez badaude.

Lehiaketa honetan parte hartzeko nahitaezko baldintza izango da Mutrikuko Udalarik ordaindu beharreko guztiak ordainduak izatea.

Administrazioak kontratua egin ahal izango du aldi baterako elkartutako enpresa-baltzuekin (baltzuen Eskritura Publikoa esleipena eginda egon arte egin beharrik izan gabe). Horrelakoan, Administrazioaren aurrean solidarioki erantzungo dute eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko da.

13. BEHIN BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen.

14. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren behin behineko esleipendunak, hartutako betebeharrak beteko direla bermatzearen, esleipen diru-kopuruaren %5eko bermea eratu beharko du.

Bermea hamabost eguneko epean eratu beharko da, behin behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bermea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84 artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da.

Bermea, bere osotasunean edo dagokion zatian, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90 artikuluan ezarritakoren arabera itzuliko da, bermearen epea amaitu eta esleipendunak kontratuaren betebeharrak guztiak bete ondoren.

15. BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO IRAGARKIA ALDI BEREAN JENDAURREAN JARTZEA

Apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretuaren 122 artikuluen 2. paragrafoarekin bat etorruta, Baldintza Berezien Agiria eta proposamenak aurkezteko iragarkia (lizitazioak egiteko), egintza berean burutuko dira. Iragarkia argitaratu eta hurrengo zortzi egun baliodunetan agiriaren aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira.

Epe horretan agiriaren aurkako erreklamaziorik izango balitz, lizitazioa eta proposamenak aurkezteko epea bertan behera lagako dira, eta falta den denbora berriz hasiko da kontatzen erreklamazioak ebatzi ondoren.



Mutrikuko Udala

16. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura irekiz eta presaz izapidetuko da.

Eskaintzak baloratzeko erabiliko diren irizpideak ondokoak dira, garrantziaren eta eman zaien haztapenaren arabera ordenatuta

- Eskaintza ekonomikoa. 40 puntu.

Eskaintza ekonomikoa baloratzeko ondoko formula erabiliko da:

$$V = \frac{\text{Baloratu beharreko eskaintzaren prezioa x gehienezko puntuazioa}}{\text{Eskaintza hoberenaren prezioa}}$$

- Langabezian dauden langileak kontratatzeagatik: 20 puntu.
Hala balitz, langabetuen datuak aurkeztu beharko dira. Kontratatzen den langabetu bakoitzeko 5 puntu emango dira, ezarritako gehienezko puntuazioa gainditu gabe.
- Erabiliko diren giza-baliabideak, argi azalduta lanpostuek zein kualifikazio profesional izango duten, eta izango dituzten funtzioak argi adieraziz. Euskara maila: 10 puntu.
- Jarduera programa eta instalakuntzaren kudeaketa plana: 10 puntu.

Eskaintako prezioaren desproporzioa apreziatu ahal izango da Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamentu Orokorraren 85 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorrita hartutako irizpide objektiboak kontuan hartuta, aurkeztutako baliozko eskaintzen erreferentzia hartuta.

Mutrikuko Udalak eman gabe utz dezake lehiaketa aurkeztutako eskaintzek beharrezko baldintzak betetzen ez badituzte.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedimendu honetan parte hartu ahal izango dute pertsona naturalek zein juridikoek, gaitasun juridiko osoa izan eta erabili dezaketanak, kaudimen ekonomikoa eta teknikoa nahiz profesionala egiaztatzen dutenak, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49 artikulua ezartzen dituen kontratatze debekuetan sartuta ez daudenak. Kaudimena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 64 eta 67 artikuluetan ezarritako moduetako edozeinekin bat etorrita egiaztatu eta baloratuko da.

Era berean, kontratua norberak edo baimendutako pertsonak parte har dezake, berariaz emandako eskuordetzaren bitartez. Pertsona juridiko baten izenean horren kideetako bat agertzen denean, agiri bidez frogatu beharko du eskumena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkaria ere aipatutako kontratatze ezintasunei lotuta dago.



Mutrikuko Udala

Enpresariak, era berean, jarduera edo kontratu honen xede den prestazioa burutzeko eska dakiekeen habilitazio enpresariala edo profesionala izan beharko dute.

18. PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Kontratazio honen espedientea, berari atxikitako agiri teknikoak barne, Administrazio honetako Idazkaritza Orokorraren bulegoan aztertu ahal izango da baliozko egun guztietan (larunbatetan izan ezik), iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Proposamenak toki eta ordutegi berean aurkeztuko dira, aipatu iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita baliozko zortzi eguneko epean. Epearen azken eguna larunbata balitz, epea baliozko hurrengo egunera arte luzatuko da.

Lizitazio hau, era berean, kontratazio organoaren profilean iragarriko da, ondoko web atarian: www.mutrikukoudala.net. Baldintzen agiriak eta agiri osagarriak toki berean eskuratu ahal izango dira.

Baldintza agiriei eta agiri osagarriei buruz lizitatzailerak eskatzen duten gainerako informazioa proposamenak jasotzeko epea amaitu baino sei egun lehenago emango zaie, betiere eskaria proposamenak jasotzeko epea amaitu baino zortzi egun lehenago egiten bada.

Sektor Publikoko Kontratuen Legearen 142.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza agiriei edo agiri osagarriei buruzko informazioa adierazitako epean eman ezin denean, eta proposamenak egiteko tokira bertara joan eta baldintza agiriei atxikitako agiriak *in situ* kontsultatu behar badira, eskaintzak jasotzeko epea interesatuek eskaintzak egiteko informazio guztia izan dezaten gomendagarritzat jotzen den beste luzatuko da.

Proposamenak jasotzeko epea iraganda jasotzen diren proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta agertu epea amaitu aurretik Correosen sartu zirela, Kontratazio organoari postaz bidalitako eguneko ziurtagiria telex, fax, telegrama edo posta elektronikoz bidali ezean. Hala ere, aurkezteko epea iragan eta hamar eguneko epean, ez da postaz bidalitako eskaintzarik onartuko. Posta elektronikoz bidaltzen den proposamenak balioa izan dezan, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erreglamendu Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Lizitatzailerak bi gutunazal itxi aurkeztu beharko dute (A eta B) bietan honakoa idatzita: “MUTRIKUKO ONDARBELTZ HONDARTZAN KANTINAREN, ALDAGELAREN ETA KOMUNEN ZEHARKAKO KUDEAKETAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOA. PROZEDIMENDU IREKIZ EGINGO DEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Gutunazal bakoitzean enpresaren izena, proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak eta zein izaerarekin izenpetzen duen. Gutunazal biak ere izenpetuta egongo dira.

“A” gutunazalean “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” izenburua idatziko da eta ondoko agiriak sartuko dira:



Mutrikuko Udala

- a) Parte hartzen duenaren edo haren ordezkoren nortasun agiri nazionala. Inoren izenean jardungo balitz, notarioaren ahalmena.
- b) Lizitazailea pertsona juridikoa denean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eratzeko edo aldatzeko eskritura eta identifizaio fiskalerako zenbakia, aplikagarria zaion merkataritza legeriaren arabera inskribaketa eska lekiokenean. Halakorik eskatu beharrik ez balego, jarduteko gaitasuna bere jarduera arautzen dituzten arauak jasotzen dituen eta dagokion Erregistro ofizialean inskribatutako eskritura, eratzeko agiri, estatutu edo eratzeko egintzaren bitartez egiaztatuko da. Espainiarrak ez diren eta Eusropar Batasunekoak diren Estatu kideetako enpresariak badira, jatorriko herrialdeko beren inskribaketa egiaztatu beharko dute ezarrita dauden Estatuko legeriaren arabera, edo zinpeko aitorpena aurkeztuta, aplikagarriak diren xedapenen arabera.
- c) Berariazko erantzukizunpeko aitorpena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49 artikuluan zerrendatutako kontratatzeko debekurik ez izatea. Berariaz agertuko da indarrean dauden xedapenek ezarritako tributatzeko eta gizarte segurantzaren aurreko betebeharrak beteta dituela. Bestela, zirkunstantzia bien egiaztagiria aurkeztu ahal dira.
- d) Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda dagoelako egiaztagiria, kontratuaren xedari dagokion atalean. Horretarako, alta aurkeztuko da ekitaldiari dagokiona bada, eta zergaren azken erreziboa beste kasuetan. Kasu bietan, erantzukizunpeko aitorpena egin beharko da aipatutako zergan baja eman ez izanarena.
- e) Kaudimen ekonomikoaren, finantzarioaren eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiria, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 64 eta 67 artikuluetan ezarritako moduan eginda. Proposamenean kontratua gauzatzearen ardura duen pertsonalaren izen-abizenak eta beraien kualifikazio profesionala agertu beharko dituzte.
- f) Enpresari batzuk Enpresen Aldi Baterako Baltzua eratuta aurkeztuko balira, enpresari bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko du aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, era berean, esleipendun suertatuz gero EABB formalki eratuko dutelako konpromisoa erantsi beharko dute. Ildo beretik, proposamenean adierazi beharko dute EABBko kide bakoitzak xedearren zein zatiren ardura hartuko duen, guztien kaudimenaren baldintzak zehaztu eta egiaztatzearen.
- g) Atzerriko enpresek aitorpena egingo dute adieraziz Espainiako edozein arlotako Auzitegi eta Epaimahaien jurisdikzioaren menpean jarriko direla, kontratuarekin lotuta zuzenean zein zeharka sor litezkeen gorabeheretarako, eduki dezaketen atzerriko edozein eskumeni uko eginda.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitazaileen eta Enpresa Klasifikatuen Erregistro ofizialak egindako ziurtagiri baten bitartez egiaztatu ahal izango dira a), b) eta e) letretan adierazitako zirkunstantziak. Estatuko Lizitazaileen eta Enpresa Klasifikatuen Erregistro ofizialak egindako ziurtagiri bitartez edo SPKLko 73 artikuluan ezarritakoaren arabera klasifikazio-ziurtagiri komunitarioaren



Mutrikuko Udala

bitartez ere egiaztatu ahal izango da. Azken kasu horretan, ziurtagiriarekin batera lizitatzailaren erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko da adieraziz ziurtagirian agertzen diren zirkunstantziak ez direla aldatu.

“B” gutunazalaren azpтитulua hauxe izango da: “PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA ESLEIPENERAKO IRIZPENAK” eta honako agiriak izango ditu:

- a) Proposamen ekonomikoa, I ERANSKINARI lotuta.
- b) Baldintza agiri honetako 16 klausulan adierazitako balorazio-irizpideak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

Eskatutako agiriak originalak edo kopiak izan daitezke, kopiak badira Administrazioak edo notario batek behar bezala konpultsatutak edo legeztatutak.

19. AGIRIEN KALIFIKAZIOA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, Kontratazio-mahaiak garaiz eta modu egokian jasotako agiriak (“A” gutunazala) kalifikatuko ditu, horretarako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erreglamendu orokorraren 81 artikuluan eta hurrengoetan adierazitako moduan jokotuta.

Kontratazio-mahaia SPKLaren bigarren Xedapen gehigarriaren 10. atalaren arabera osatuko da.

Lizitatzaileren gaitasunari eta kaudimenari buruzko informazio osagarria eskatu ahal izango da, eta, Erreglamenduaren 22 artikulua ezartzen duenez, bost egun naturaleko epean aurkeztu beharko da. Informazio osagarria ahoz jakinaraziko die Mahaiak interesatuei, eta, era berean, Kontratazio Organoaren iragarki oholean zein kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Konpondu daitezkeen akatsak daudenean ere, Mahaiak modu berean jokotuko du eta, kasu honetan, lizitatzailerek hiru eguneko epea izango dute aurkitutako akatsak zuzentzeko.

Aurkeztutako agiriak kalifikatu eta aurkitutako akatsak edo gabeziak konpondu ondoren, kontratazio-mahaiak baldintza agiri honetako 18 klausulan zehaztutako aukeraketa-irizpideak betetzen dituzten enpresak zeintzuk diren adieraziko du, baita onartu ez direnak zeintzuk diren eta zergatik onartu ez diren.

Aurkeztutako eskaintzak (“B” gutunazala) proposamenak aurkezteko epea amaitu eta ondoko laugarren egun baliodunean (larunbata balitz, hurrengo baliodun egunean), eguerdiko 12:00etan, zabalduko dira. Postaz bidalitakorik balego, Administrazio Publikoen Kontratuen legearen Erreglamendu orokorrean ezarritakoa beteko da.

Ondoren, proposamenak balioetsi eta sailkatuko dira, handitik txikira, 16 klausulan ezarritako irizpideak kontuan hartuta. Beharrezko txosten teknikoak aztertu ondoren, Kontratazio-mahaiak Kontratazio organoari zuzenduko dio esleipen-proposamena.



Mutrikuko Udala

20. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio organoak behin behineko esleipena ekonomikoki onuradunena den proposamenari egitea erabakiko du.

Behin behineko esleipena proposamenak ireki eta hamabost eguneko gehienezko epean egingo da. Epe hori hamabost baliodun egunetan luzatu ahal izango da, SPKLaren 145.3 artikulua babesean, ezohizkotzat edota neurrigabetzat har daitekeen proposamen bat edo gehiago identifikatu eta SPKLaren 136.3 artikuluan ezarritako izapideak egin behar direnean.

Proposamen bat ezohizkotzat edota neurrigabetzat hartu aurretik, aurkeztu duen lizitatuzaileari entzun beharko zaio, eta beharrezko zerbitzuaren aholkularitza jaso beharko da.

Kasu horretan, Kontratazio Organoak, lizitatuzaileak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusirik, Administrazioa gogobeteta gauzatu daitekeela uste den eta ekonomikoki onuradunena den proposamenaren aldeko behin behineko esleipena egitea erabakiko du, edo ezohizkotzat edota neurrigabetzat hartzen ez denaren aldekoa.

Kontratatuzailearen profilean behin behineko esleipendunaren argitalpena egin eta hurrengo egunean hasita, esleipendunak ondokoak egin beharko ditu hamabost egun baliodunetan:

- a) Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzakoak egunean izatearen ziurtagiriak, horiek proposamenarekin batera aurkeztu ez badira. Horiekin batera, kontratua gauzatzeko izango dituela adierazitako baliabideak edukitzearen egiaztagiria.
- b) Behin betiko bermea eratzea, eta, beharrezkoa bada, berme osagarria.

Behin behineko esleipena aurretik adierazitako epea amaitu eta hamar egunera izango da behin betiko, betiere esleipendunak adierazi zaizkion egintzak egin baditu. Egintza horiek egin ez baditu, ez da egingo behin behineko esleipendunaren aldeko esleipenik.

SPKLaren 139.2 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, kontratua izenpetzera agertu ezean edo prozedimendu honetan atzera eginez gero, lizitatuzaileei lizitazioak sortu dizkien gastuen kalteordaina Administrazio honek erabakiko du, haiei entzun ondoren.

Kontratua Kontratazio Organoak egindako behin betiko esleipenez egingo da, eta esleipendunari jakinaraziko zaio. Baliodun hamar eguneko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, ondoko egintzak egin beharko ditu:

- a) Izango balira, publizitate ofizialaren gastuak ordaindu, gehienez 500 euro ordainduta.
- b) Administrazioaren aurrean agertu, kontratua agiri administratiboan izenpetzeko.

Kontratistari lepora lekizkiokeen arrazoiengatik kontratua gauzatu ez balitz, Administrazioak kontratua bertan behera lagatzea erabaki lezake, interesatuari entzun ondoren, kalteordainak izendatuta.



Mutrikuko Udala

21. KONTRATAUA GAUZATZEA

Administrazioak eta kontratistak Agiri administratiboan gauzatu beharko dute Ondarbeltz hondartzako kantinaren, aldagelen eta komunen zeharkako kudeaketa egiteko kontzesioaren kontratua, esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo 30 egunetan, bera edozein Erregistrotara jotzeko nahikoa titulu izanik. Hala eta guztiz ere, kontratu administratibo horren Eskritura publikoa egin liteke kontratistak hala eskatu eta berak ordaintzen badu.

Kontratuaz gain, kontratistak Baldintza Administratibo Berezien Agiria sinatu beharko du, agiri hori kontratuari erantsita ez balego, eta proiektu teknikoa ere bai.

22. ESLEIPENDUNAREN KONTURAKO GASTUAK

Esleipendunaren konturako gastuak izango dira ondokoa:

- a) Lehiaketaren iragarpenarenak eta kontratuaren prestaketarakoak zein gauzatzekoak.
- b) Kontratutik eratorritako Estatuko, udaleko zein lurraldeko zergak.
- c) Esleipenaren prezioaren barruan dagoela ulertuko den BEZ ordaintzea.
- d) Esleipen kontratuaren gauzatze publikoarenak.

23. INSTALAKUNTZAK JASOTZEA, ITZULTZEA, ETA BERME-EPEA

Kontratuaren xedea bukatu eta hogeita hamar eguneko epean, ondo burutu izanaren egintza formala eta positiboa egingo da Mutrikuko Udalaren bulegoetan.

Kontratu honen izaera kontuan hartuta ez da berme-eperik aurreikusten.

Kontzesioaren epea amaitzen denean, utzitako instalakuntzak Mutrikuko Udalarari itzuliko zaizkio, Erreglamentuaren 131 artikuluan aurreikusitako moduan.

24. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI SOR LEKIZKIEKEEN KALTEEN AURREAN

Kontratista izango da erantzule kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarrenei sor lekizkiekeen kalteen aurrean, Sektore Publikoko kontratuen legearen 198 artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta.

25. ZIGORRAK, KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

A) KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK



Mutrikuko Udala

Kontratistak, berari lepora lekizkiokeen arrazoiengatik kontratua gauzatzeko epea atzeratuko balitz, osotasunean zein, baleude, tarteko epeak, Administrazioak aukera izango du kontratua bermea galduta bertan behera lagatzeko zein egunero 10 euroko zigorra ezartzeko.

Atzerapenagatiko zigorrak kontratuaren 100eko 5en multiplora iristen direnean, Kontratazio Organoak ahalmena izango du kontratua bertan behera lagatzeko edo zigor berriak ezarrita aurrera jarraitzea erabakitzeko.

B) PRESTAZIOA BURUTZEA

Kontratistak, berari lepora lekizkiokeen arrazoiengatik kontratuan zehaztutako prestazioak gauzatu ez edo gaizki gauzatu balitu, Administrazioak aukera izango du kontratua bertan behera lagatzeko edo egun bakoitzeko kontratuaren guztirako prezioaren 100eko 10eko zigorra ezartzeko.

26. KONTRATUA BERTAN EBHERA LAGATZEKO ARRAZIOIAK

Zerbitzu kontratua bertan behera lagatzeko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko kontratuen legearen 206 eta 284 artikuluetan ezarritakoak, kontratazio administratiboa arautzen duen legerian adierazitakoak, eta hamabi hileko epean aurreko klausulan aurreikusitako hiru akats oso larri egitea. Gainera, kontzesioa bertan behera lagatzeko arrazoiak dira hurrengoak:

1. Udalak zerbitzua erreskatatzea.
2. Kontratuaren epea amaitu delako zerbitzua itzultzea.
3. Interes publikoko arrazoiengatik zerbitzua kentzea, sortutako kalteak ordainduta.
4. Pertsona fisikoa balitz, esleipenduna hiltzea.
5. Pertsona juridikoa balitz, izaera hori amaitzea.
6. Kilimon egitea edo ordainketak etetea, Udalaren ustez errekuperazio ekonomikoa gertatzeko aukerarik ez balego.
7. Zerbitzuak defizita sortuko balu, aldeetako edozeinek eska lezake kontratua bertan behera lagatzeko.
8. Kontratua bertan behera lagatzea esleipendunari egotz lekizkiokeen arrazoiengatik gertatuko balitz, esleipendunak fidantza galduko luke, eta Udalak bidezko diren kalte ordainak eskatzeko egintzak bideratzeko aukera beretzat hartuko luke, esleipenduna kalteordainik geratuta, hurrengo balizko egoeran izan ezik: Esleipendunak, esleipen-kontratua gauzatzean inbertsioak egin balitu eta horiek, duten ezaugarriengatik, nahitaez Udalak jabetzan hartu beharko balitu, ondoko eran kalkulaturako kalte ordaina legokioke: Inbertsioaren balio erreala kontzesioaren urte kopuruak zatituta; emaitza bider gauzatu gabeko urte kopurua; emaitza, kalte ordaina.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

27. DATU PERTSONALEN BABESA



Mutrikuko Udala

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak erabiltzea ekarriko balu, kontratistak SPKLaren hogeita hamaikagarren Xedapen Gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearekin eta hori garatzeko araudiarekin bat etorrira.

28. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honetatik eratorritako gorabehera guztiak Kontratazio Organoak erabakiko ditu. Erabaki horiek amaiera emango diote administrazio bideari, eta, beraien aurka erabakia hartu duen organoaren aurrean berraztertzeko helegitea aurkezterik izango da, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-helegitea Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Auzitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena edo argitalpena egin den egunetik hasita, guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearekin eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorrira.

Hala eta guztiz ere, aldeek beren gatazkak arbitrajean jartzea adoste dezakete, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Mutrikun, 2010eko martxoaren 15a